

EUSKAL HERRIA BILDU federazioaren kontratazioetarako barne arautegia

Sarrera

EUSKAL HERRIA BILDU alderdi politikoen federazioa (hemendik aurrera EH BILDU), idatzi honen bidez bere barne kontratazioetarako arautegia finkatzen du, alderdi politikoen ekonomi eta finantza-jarduera kontrolatzeko 3/2015 Lege Organikoak dioenarekin bat egitekoan.

Aipatutako legea jarraituz, barne arautegi hau publikotasun, konkurrentzia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta ez diskriminazio printzipioetan oinarrituko da, betiere autonomi eta konfidentzialtasun beharrak kontutan izanik.

1. Titulua. Xedapen orokorrak

1. Aplikazio eremua

Kontratazioetarako barne arautegi honek, EH BILDUK 500 eurotik gora egindako adjudikazio kontratu orori aplikatuko zaio.

Pertsonal kontratazioari dagokionez, kontratazio hauek EH BILDUren lan-hitzarmenean esandakoaren bitartez egingo dira edota pertsonal hautaketarako arautegi zehatz baten bidez.

Halaber, EH BILDUK ez ditu kontraturik sinatuko oinarrizko eskubideak urratzen dituzten entitateekin eta giza, ingurugiro, gobernu on eta gardentasun arloetan erantzukizun korporatiboak barneratzen dituztenak lehenetsiko ditu.

2. Kontratuen zuzenbide-erregimen eta juridiskzioa.

EH BILDUK sinatutako kontratu oro, kontratu pribatuaren kontsiderazioa izango dute, eta zuzenbide pribatuaren bidez zuzentzen dira, bai zuzenbide zibil edo merkataritza zuzenbidearen baitan, epaitegi hauek izango dira kontratu hauetan sortutako ezbeharrak zuzentzeko gaitasunak izango dituztenak.

3. Baztertutako kontratuak

Kontratazioetarako barne arautegi honetatik kanpo geratuko dira, Zerbitzu Publikoen Kontratueterako (ZPKL) 3/2011ko Errege Dekretu Legegileko 4. artikuluan aurreikusitakoak:

a) Salerosketen, donazioen, truketze, alokairu eta gainontzeko higiezin gaineko negozio juridiko analogoak, negoziaketa balore eta jabetze ukiezina,

ordenagailuetakoak ez ezik edota Espainiako Bankuaren bidez eskaini beharrezkoak.

b) Arbitrajea eta kontziliazioa

d) Finantza instrumentu edo tituluen emisioa, salmenta, erosketa edota transferentziak, batez ere, diru edo kapitala lortzeko egindako eragiketak, hala nola, Espainiako Bankuak prestatutako zerbitzuak.

e) Lan eremuan araututako kontratuak. Lan kontratuetan oinarritutako kontratuak lan-hitzarmenean arautuko dira. Pertsonal hautaketa prozesuak, publikotasun, konkurrentzi, gardentasun, konfidentziasun, berdintasun eta ez-diskriminazioan oinarrituko dira. Pertsonal kontratazioari dagokionez, kontratazio hauek EH BILDUren lan-hitzarmenean esandakoaren bitartez egingo dira edota pertsonal hautaketarako arautegi zehatz baten bidez.

f) Kontratazio organoak konfidentziasunezko zat eman dituen kontratazioak.

g) Kolaborazio hitzarmenak, betiere ez badira kontratu baten aurreikusitakoaren xede.

2. Titulua - Kontratazio atala

1. Kontratazio organo nazionala

Barne antolakuntza arloa, alderdia kudeatu eta administratzeko organo eskumendu gisa, alderdiaren ondasunen erosketa, administrazio, transmisio eta zergatzeko organo arduraduna izango da.

Halaber, kontratazio mahaia osatzeko kasuetan, hurrengoak osatuko dute:

- Zuzendari nagusia edota eskuordetzen diona.
- Barne antolakuntzako zuzendaria
- Kontratazioarekin bat datorren arlo edo lurraldearen zuzendaria.

Kontratazioarekin bat datorren arloa barne antolakuntzako arloa denean, kontratazio mahaira Barne Antolakuntzako teknikari bat gehituko zaio.

Kontratazio mahaiaren funtzioak hurrengoak izango dira:

- a) Oinarri baldintzen, kontratazio klausulen eta preskripzio teknikoaren sorkuntza.
- b) Jasotako ezohizko edo neurritz kanpoko eskaintzen kanporatzea.
- c) Eskaintzen azterketa.
- d) Esleipenaren erresoluzioa eta lizitatzaileri erantzun ematea.
- e) Kontratuaren jarraipena

Behin esleipena egin dagoenean kontratazio mahaia alderdiaren lege ordezkariari ahalduko du, kontratatuaren sinadura egin dezan.

2.-Kontratazio organo lokala.

Herri erakunde bakoitza, EH BILDUKo estatutuek diotena jarraituz, pertsona bat ezarriko dute, diruzaintzako arduradun gisa. Pertsona hori izango da, herri ikuspegiko kontratazioak egiteko ardura izango duena, kontratuzioetarako barne arautegi honek dioena jarraituz egingo duena.

3. Titulua - Kontratazio hitzarmenaren oinarri erregulatzailerak.

Kontrataziorako barne arautegi honetatik eratorritako kontratazio guztiek publikotasun, konkurrentzi, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta ez-diskriminazioko printzipioetan oinarrituko dira.

Publikotasun printzipio

EH BILDUK, publikotasuna bermatuko du, hori bera, merkatuan dauden eragile ekonomiko eta publiko guztiek kontratazio prozesuaren gaineko informazio osoa jasotzeko baliabideak ematen zaizkienean, hala nola prozesuan parte hartzeko beharrezko informazioa bermatzen zaienean.

Konkurrentzia printzipioa

Barne arautegi honi dagokionez, konkurrentzi printzipioa osatua izango da, kontratazioaren xedea burutzeko gaitasuna duten eragile guztiek prozesuan parte hartzeko askatasun osoa izateko emango diren berme guztiengatik.

Gardentasun printzipio

Barne arautegi honi dagokionez, eragile ekonomiko edota lizitatzailerak izan daitezkeen eragile guztiek kontratazio prozesu, hautaketa eta esleipen irizpideen, hala nola, baztertze edota ez-esleipen erabakien inguruko informazioaren ezagutza osoa izan dezaten egindako jokabideak, gardentasun printzipioa betearazitzak emango dute.

Konfidentzialtasun printzipioa

EH BILDUK ez du eskaintzailerak konfidentzialtzat zerrendatutako informaziorik argitaratuko, betirere justifikatua izan baldin bada. Horiek izan ahal dira, merkataritza sekretua, sekretu-teknikoa, edo konfidentzialtasunarekin zerikusia duen beste edozein.

Modu berean, eskaintzailerak behartuta daude, EH BILDUK konfidentzialtzat eman dituen informazio guztia sekretupean gordetzera, baita kontratuaren ondorengo emaitzak edo lanak ez-argitaratzera esleipenaren ostean, baita kontratua bukatu ostean ere.

EH BILDUK 15/1999 Datu Babesen Lege Organikoa (DBLO) betetzeko behar diren neurri guztiak hartuko ditu, kontratuetan behar bezain klausulak ezarrita DBLOa betetzat izan dadin.

Berdintasun eta ez-diskriminazio printzipioa

Barne arautegi honetan araututako prozedurek eskaintzailerak guztien berdintasun eta ez-diskriminazioa bermatuko dute. Ez dira eskaintzailerak batzuk

besteen gaintik laguntzeko jokabiderik egingo.

4. Titulua - Eskaintzaileak

EH BILDU kontratuak sinatu ahalko ditu, bai pertsona juridiko edo naturalekin, oinarri publiko edo pribatuak dituztenekin, betiere Europar Batasunean jarduteko baimenak dituztenak, eta eskatutako jarduera betetzeko gaitasun osoa dituztenak, bai kaudimen-ekonomiko eta finantziario aldetik baita arlo profesional edota teknikoaren aldetik. Zehazki baztertuak izango dira ZPKL-an espreski baztertuak daudenak.

EH BILDU, gizarte-erantzukizun, ingurugirorekiko, gobernu onarekiko eta gardentasunarekiko balio positiboak dituzten eskaintzaileak lehenetsiko ditu. Halaber, baztertu ahalko ditu, berdintasun printzipioa urratu gabe, oinarrizko eskubideak urratzen dituzten eskaintzaileak.

5. titulua - Kontratazio prozesuak

Hemen ageri diren kopuru limiteei dagokionez, Balio Erantsiko Zerga (BEZ-a) barneratu gabe dagoela kontutan hartu behar da.

Edozein langile, zeina eskaintzaile den edozeinekiko zuzeneko ahaidetasun izan ezker ezin izango du kontratazio prozesuko edozein zatitan parte hartu.

1.- Prozesu ordinarioa

Prozesu honen baitan jardungo dute, urtebetean zerbitzutan 18.000 eurotik gora edo obretan 80.000 eurotik gorako kontratuen hautaketa, betiere hauek konfidentziaz, izaera artistikodun edota jabetza eskubideak direla medio, kontratazio mahaiak hala erabakita baztertuak ez badira.

Prozesu ordinarioak hurrengo faseak izango ditu:

1.1 Dagokion sail edo lurraldeko eskaria Barne Antolakuntzari.

Dagokion sail edo lurralde interesatuak txosten bat egin beharko dio, barne antolakuntza sailari zuzendua, kontratazio horren bidez gauzatu nahi den xedea, epea, aurrekontu estimatua eta bestelako informazio osagarriarekin.

1.2 Gastuaren onarpena eta kontratazio mahaiaren osaketa.

Barne antolakuntzako sailak EH BILDUren urteko aurrekontuan gastuari aurre egiteko nahikoa kreditu dagoela onartu ostean, kontratazio mahai osatuko da, barne arautegi honen bigarren tituluan esandakoa jarraituz.

Urteko aurrekontuak nahikoa kreditu ez dagoela suertatuko balitz, idazkaritza nazionalean onartu beharko litzateke gastu hori, eta onartuz gero, hegoaldeko mahai politikoari informatuko litzaioke.

Kontratazio mahaiak erabakiko du prozedura ordinarioarekin jarraitu edo bestelako prozedura egokiago batera bideratzea.

1.3 Baldintza-agiri, kontratu klausulen eta preskripzio teknikoaren sorkuntza.

Kontratazio mahaiak, baldintza-agiri, kontratu klausulen eta preskripzio teknikoaren zehaztuko ditu, interesdun sailak egindako txostenean oinarrituz.

1.4 Kontratazio txosten, publizitate aldia eta eskaintzen harrera.

Kontratazioari dagokion txostena irekiko da eta lizitazio iragarkia EH BILDUren web-orrian argitaratuko da, non baldintza-agiri, kontratu klausulak eta preskripzio teknikoak ageriko diren, hala nola esleipenerako balorazio irizpideak eta eskaintzaileek eskaintzak aurkezteko prozedura azalduko dira.

Iragarkia web-orrian gutxienez 8 egun naturalez mantenuko da, zeina bitarte horretan eskaintzaileek eskaintzak egiteko aldia izango dena, iragarkian azaldutako prozeduren bitartez.

1.5 Eskaintzen balorazioa

Kontratazio mahaiak eskaintzak aztertuko ditu, azalpen eta zuzenketarako aldi bat bermatuz.

1.6 Esleipen erabakia eta eskaintzaileei erantzuna.

Kontratazio mahaiak esleipena ebatziko du eta ebazpen honen berri eskaintzaile guztiei emango die, baita EH BILDUren web-orrian argitaratuko du.

Kontratazio mahaiak kontratazioa bete gabe utzi ahalko du, eskaintza nahiko egokirik jaso ez dela ebazten badu, eta barne arautegi honetan zehaztutako beste prozedura egokiago bat ireki ahalko luke kontratazioa berbera burutzeko.

1.7 Kontratuaren formalizazioa

Behin kontratazio mahaiak kontratua formalizatu duenean, EH BILDUren legezko ordezkariari erabakiaren berri emango dio, ebazpenaren informazio guztiarekin, kontratua siña dezan. Kontratuak zin egin beharko die kontratazio espedientearen ageri diren klausula eta preskripzio teknikoari, baita esleipendun eskaintzaileak egindako eskaintzan ageri denari.

Kontratazio mahaiaren esku geratuko da, kontratuaren jarraipen eta betearazpena.

2. Larrialdizko prozedurak.

Geroraezinak diren edo larrialdizko prozedurek, edota kontratazio mahaiak hala erabakita, esleipena aurreratzea beharrezkotzat hartzen direnak, publizitate eta eskaintza jasotze aldi minimoa erdira murriztu ahalko da.

3. Kontratazio txikien prozedura

Kontratazio txiki gisa hartuko dira, ekitaldi baten zehar zerbitzuetan 18.000 euro azpitiko kontratazioak eta obretan 80.000 eurotik azpitiko kontratazioetan. Kontratazio txikietarako prozedura hurrengo faseak izango ditu:

3.1 Sail edo lurralde eskatzailearen eskaria barne antolakuntza sailera.

Kontratazio burutu nahi duen sail edo lurraldeko koordinatzaileak, txosten bat zuzendu beharko dio barne antolakuntzako sailari, non kontratazioaren xedea, aurrekontu estimatua, epea eta gainontzeko informazio osagarria zehaztuko den.

3.2 Gastuaren onarpena, kontratu-klausula eta preskripzio teknikoen sorkuntza.

Barne antolakuntza saila, urteko aurrekontuaren arabera gastua onartu edo deuseztatuko du. Onartuz gero, beharrezkoa balitz, kontratu klausulak eta preskripzio teknikoak sortuko dira, eskaria egin duen sail edo lurraldeak prestatutako txostena oinarritzat hartuz.

Gastua deuseztatuz gero, idazkaritza nazionalari eskatu ahalko zaio gastuaren onarpena eta onartuz gero egindako aurrekontu aldaketa hegoaldeko mahai politikoari informatuko zaio.

3.3 Zerbitzua presta dezaketen enpresekin zuzeneko negoziaketa.

Barne antolakuntzako saila, kontratazioaren xedea burutu ahalko duen enpresekin zuzenean negoziatuko du, zerbitzu edo obraren prestazioa. Dena den, eskaria egin duen sail edo lurraldeko zuzendariari eskuordetu ahalko du negoziazioa burutzeko.

Betiere, posible balitz, gutxienez 3 enpresari eskatuko zaie aurrekontu edo aurre eskaria.

3.4 Kontratuaren esleipena, fakturaren eransketa eta ordainketa.

Behin negoziaketa burutu ostean, kontratua sinatzea beharrezkoa balitz, EH BILDUren legezko ordezkariari informatuko litzaioke kontratuaren sinadura egin dezan, hautatutako hornitzailearekin hitzartutako baldintzapetan.

Barne antolakuntzako sailak, hornitzaileari faktura eskatuko dio eta behin jasota ordainketa burutuko da.

4. Zuzeneko esleipen prozesua.

Prozesu honetatik zuzendu ahalko dira ekitaldi baten 2.500 euro azpitiko kontratazioak.

Kontratazio burutu nahi duen lurralde edo sailak zuzenean esleitu ahalko dio hornitzaileari, eskaintza gehigarriak eskatu gabe, betiere barne antolakuntza sailarekin kontratazio burutzeko aurrekontu nahikoa duela egiaztatuta ostean.

5. Hitzarmen marko bidezko kontratazioak

EH BILDUK hitzarmen markoak sinatu ahalko ditu, hornitzaile bat edo anitzekin, aktibitate zehatz batzuetan baldintza ekonomiko-teknikoak zehazteko, zeinak kontratu eta epe zehatz batzuetara zehaztuko diren.

Hitzarmen bidez zehaztutako aktibitate bakoitzeko hornitzaile kopurua gutxienez 3 hornitzailekoa izango da, betiere posible den heinean.

Hitzarmenen epea ez da inoiz ez 4 urte baino gehiagoz luzatuko.

Hitzarmen marko bidezko kontratuek hurrengo prozedura jarraituko dute:

5.1 Barne antolakuntzako sailak hitzarmen marko bidez zuzenduko diren aktibitate, hornidura eta zerbitzuak zehaztuko ditu eta beharrezko klausulak zehaztuko ditu zeinak hitzarmenean zehaztuko diren.

5.2 Barne antolakuntzako sailak zerbitzua presta dezaketen hornitzaileekin negoziatuko du eta hitzarmenera barneratzeko eskaria egingo die.

5.3 Hitzarmen markoaren erredakzioa burutuko da eta EH BILDUren legezko ordezkariaren sinadura beteko da.

5.4 Urtero hitzarmenen ikuskaritza bat egingo da, non lan bolumen, hitzarmenaren egoera, hala kontratisten bermeak berrikusiko diren, hitzarmenaren funtzionamendu egokia izan dadin.

6. Zuzeneko esleipena konfidentzialtasun, artistiko edo jabetza eskubideak arrazoiengatik.

Hurrengo arrazoietatik gutxienez arrazoipen bat duten kontratu oro prozedura hau jarraitu ahalko dute, kontratuaren kopuru edo iraupena zein den axola gabe:

- Oinarri artistikoa duten lanak.
- Ikerketa soziologikoak eta inkestak.
- Aholkularitza juridiko edota finantzieroa.
- Datu babesean tratamenduarekin edota DBLOarekin zerikusia duen oro.
- Prensa, informazio eta medioen zuzkidurentzako sarbidea.

- Jabetza eskubidea zerikusia duen edota ibilgetu ukiezinaren hornidura.
- Prentsan, irrati, weborrietan edota kanpo publizitatearen zuzkidura.
- Espazio publikoen erreserba.
- Afiliatu eta karguen formakuntzarekin zerikusia duen oro, baita jabetza intelektualarekin zerikusia duenak ere.
- Boto eskaera eta estrategia politikoarekin erlazio duen oro.

Kasu hauten, idazkaritza nazionalak gastuaren onarpena eta kontratazioaren xedea finkatuko du, urteko aurrekontua oinarrituz. Idazkaritza nazionalak, bere zuzendari nagusiaren edo berak eskuordetzea erabaki duen pertsonaren bitartez, alderdiaren legezko ordezkariari helaraziko dio kontratua sina dezan.

7. Herri ikuspegiko kontratuak

Prozesu honetatik bideratuko dira, herri-erakundeek egindako zerbitzu edota obra aurrera ateratzeko xedea duten kontratuak.

Kasu hauetan prozedura hurrengoa izango da:

1. Herriko mahai politikoko diruzaintzako arduraduna, barne antolakuntza sailari eskaria bidertuko dio, beharrezko datuekin.
2. Barne antolakuntzako sailak erantzuna emango du, gastu egiteko aurrekontu nahikoa balego, gastu onartuko luke eta kontrakoa balitz gastua deuseztatuko luke.
3. Herri erakundeak hornitzaile aproposena bilatuko du eta proposamena barne antolakuntza sailari bidaliko dio.
4. Behin proposamena jasota, barne antolakuntzak:
 - a. Gastua onartu, hornitzailearekin kontaktuan jarri faktura helarazteko eta ordainketa burutzeko.
 - b. Diru kopurua edo egokitasunaren arabera, prozedura ordinario, txiki, konfidentzial hasi ahalko du edota hitzarmena sinatua duen hornitzaile bati pasa ahalko dio kontratuaren esleipena.

8. Hautes-kanpaina eta boto eskarrietatik eratorritako gastuak

Hautes-kanpainetatik edota boto eskari kanpainetatik eratorritako gastuak, kanpaina bakoitzerako eratuko den mahai zehatzaren bitartez kudeatuko dira. Betiere kanpaina aurrekontu bat sortuko da, zeina barne arautegi honek zehaztutako printzipioak mantenduko dituen. Halaber, hauteskunde-kanpaina edota boto eskari-kanpainek hautes-legeek diotena bete beharko dute.

5. Titulua - Azken xedapenak

1. Kontratazioetarako barne arautegi hau, onartzetik 60 egun naturalera indarrean jarriko da.
2. EH BILDUK indarrean dituen kontratuak, bere baitan mantenduko dira, baina gehienez bi urteko epean berbegiratu beharko dira, barne arautegi honetan esandakoarekin bat.
3. Barne arautegi hau EH BILDUren weborrian mantenuko da indarrean dagoen bitartean.
4. Hegoaldeko mahai politikoa izango da kontratazioetarako barne arautegi honetan aldaketak egiteko eskumena duena.

EH BILDUKo hegoaldeko mahai politikoa onartua, Donostian 2017ko azaroaren 27an.